

EROSKIK ANIMALIEN ONGIZATEARI DAGOKION ZIURTAGIRIA LORTU DU EROSKI NATUR SAILEKO TXERRI HARAGIAN

- Txerriak ekoizten dituzten etxalde guztiek Animalien Ongizateari dagokion ziurtagiria daukate, AENOREk emana; Animal Welfare erakundeak ezartzen dituen estandar zorrotzak gainditu behar izaten dituzte horretarako, besteak beste elikaduraren, bizilekuaren, osasunaren eta jokabide naturalaren arloan
- Kooperatibak Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde egiteko konpromisoak berritu ditu orain dela gutxi, eta elikadura iraunkorragoa sustatzea da horren helburu nagusia.

Elorrio, 2018ko irailaren 25a.- **EROSKI** pausoak ematen ari da elikadura osasungarriagoaren alde egiteko, eta Animalien Ongizateari dagokion ziurtagiri berria erantsi dio Duroc arrazako bere txerri haragiari, zeina EROSKI Natur marka propioaren barrenean merkaturatzen baitu bere merkataritza sare guztian. Txerriak ekoizten dituzten etxalde guztiek Animalien Ongizateari dagokion ziurtagiria daukate, AENOREk emana; Animal Welfare erakundeak ezartzen dituen estandar zorrotzak gainditu behar izaten dituzte horretarako, besteak beste elikaduraren, bizilekuaren, osasunaren eta jokabide naturalaren arloan.

Kooperatibak zaindu egiten du prozesu guztiak ahalik eta erantzukizunik handienarekin egiten direla, hasi ekoizpenetik eta dendetako operazioetaraino. [Kooperatibak Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde egiteko konpromisoak berritu ditu orain dela gutxi, eta elikadura iraunkorragoa sustatzea da horren helburu nagusia.](#)

"Konpromiso irmoa dugu kontsumo arduratsuaren alde. Alde horretatik, animaliairen ongizatea da gure hornitzaileei baldintzen pleguan jartzen diegun ardatzetako bat, eta are irmoago eskatzen diegu gure markarako aritzen direnei. EROSKIIn ahalegina egiten dugu bestelako aukera batzuk emateko elikadura orekatua eta ardurazkoa eraman nahi dutenentzat, eta hor sartzen da Duroc arrazako txerri haragiaren ziurtagiri berri hau, zeina gure markaren barrenean merkaturatzen dugun", azaldu du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

500 erreferentzia baino gehiago Eroski Natur sailean

EROSKI
Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel:
946 comunicacion@eroski.es
211
214

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE
JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel:
944 **Online prentsa aretoa**
EIZQUIERDO@CO 158
azubiaga@cor 642



EROSKI lanean ari da produktu motarik onenak hautatu eta zapore bereizgarria dutenak eskaintzeko EROSKI Natur sailaren barrenean; modu jasangarrian ekoitziak izan daitezela nahi du, inguruarekin errespetuz eta arduraz jokatzeko duen prozesuen bidez, eta besteek ez bezalako zaporea, jatorria, barietatea-arraza edo ezaugarri organoleptikoak izan ditzatela, horrek bermatzen baitu marka horretako produktu fresko hautatuen berezitasuna.

Kooperatibak handitu egin du freskoen eskaintza marka propioetan, eta *EROSKI Natur* markari dagokionez, 500 erreferentzia baino gehiago ditu frutetan eta barazkietan, haragian eta arrainetan, eta produktu mota berriak gehitzen ari da; besteren artean, landako arrautza freskoak, aske bizi diren oiloetatik datozenak.

2017. urtean 20.000 kontrol inguru egin ditu bere markako produktuen kalitatea eta segurtasuna bermatzeko; besteak beste, ikuskaritzak egin dizkie hornitzaileei, produktuen analisiak egin ditu eta fitxa teknikoaren egiaztapenak ere bai.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel:
946
211
214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel:
944
EIZQUIERDO@CO 158
azubiaga@cor 642

**Online prentsa
aretoa**